BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

749

AGINDUA, 2014ko urtarrilaren 16koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Amurrio udalerriko SAPUR 1 PAR. 4.6 eta 4/.7-n babes ofizialeko 56 etxebizitza esleitzeko prozedura bukatzeari buruzkoa.

GERTAKARIAK

1.– 2011ko urtarrilaren 19an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A.ri eman zitzaion Amurrio udalerriko SAPUR 1 PAR. 4.6 eta 4/.7-n babes ofizialeko 56 etxebizitza sustatzeko behin-behineko kalifikazioa (espediente-zenbakia: EB1-0947/10-LC-000).

2.– Etxebizitza eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko maiatzaren 9ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesuari hasiera eman zitzaion, eta etxebizitza horiek esleitzeko zenbait zehaztapen egin ziren.

Agindu horrek gehitzen du prozedurara batzeak borondatezkoa izan behar duela, agindua argitaratzen denetik hamar egun naturaleko epean.

Azkenik, batze horrek bi fase izan zituen. Hasierako 10 eguneko fase bat, urtebete arinagotik Amurrion erroldatuta zeuden eskatzaileentzat; onartutako behin-behineko 17 eskabide jaso ziren. Horrek bigarren batze-fasea egitera behartu zuen, Laudioko arlo funtzionalarentzako, eta 33 eskabide gehiago jaso ziren.

Sustapen honetarako onartutako 50 eskabide daude, eta horrek ez du estaltzen sustatu beharreko etxebizitza kopurua.

3.– Hori aintzat hartuta, Visesa-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A.ren eta Administrazioaren betebeharra da, une honetan dagoen baliabide ekonomiko urria ikusirik, eskakizun nahikoa duten sustapenak burutzea eta zenbait udalerritan gertatutako kasuak saihestea, Gasteizen nagusiki egin den bezala, non inbertsio ekonomiko handia egin ondoren, babestutako etxebizitzaren eskaintza dagoen eskaria baino askoz ere handiagoa baita; horren ondorioz, amaitutako etxebizitza babestu huts dezente dago, eskatzaileak falta baitira.

4.– 2013ko azaroaren 20an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A.k Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak agindua eman zezala eskatu zuen, ebazteko Amurrio udalerriko SAPUR 1 PAR. 4.6 eta 4/.7-n babes ofizialeko 56 etxebizitza esleitzeko prozeduran berehalakoan gertatu den aurrera egin ezina. Visesak eskatzaileei jakinaraziko die sustapena ezin dela aurrera eraman eskatzailerik ez dagoelako, eta Arabako Lurralde Ordezkaritzari eskatuko dio goian aipatutako behin-behineko kalifikazio-espedienteari uko egiteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eman behar du agindu hori, hala aurreikusita dagoelako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatzen denez, orobat, prozedura amaitu ahal izango da berehalakoan gertatutako arrazoiak tarteko materialki jarraitu ezin bada. Nolanahi ere, ematen den ebazpena arrazoitu behar da.

3.– Bestalde, lege beraren 42.1 artikuluaren bigarren idatzi-zatiak dioenez, preskripzioa gertatu, eskubideari uko egin, prozedura iraungi edo eskaeran atzera eginez gero, baita prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, gertatutako ingurumariak adieraziko dira ebazpenean, betiere, jazotako egitateak eta aplika daitezkeen arauak zehaztuta.

4.– Sustapena aurrera ezin eramatea, eskatzailerik ez dagoelako, eta behin-behineko kalifikazioari eta Amurrio udalerriko SAPUR 1 PAR. 4.6 eta 4/.7-n babes ofizialeko 56 etxebizitza eraikitzeari uko egitea gerora sortutako arrazoia da, ezinezko egiten baitu etxebizitza horiek esleitzeko 2013ko maiatzaren 9ko Aginduaren bidez hasitako prozedurari jarraipena ematea. Ondorioz, prozedura amaitzen da.

Horregatik guztiagatik, eta aipatutako arauak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Gerora sortutako ezintasuna gertatu dela deklaratzea, hain zuzen ere, Amurrio udalerriko SAPUR 1 PAR. 4.6 eta 4/.7-n babes ofizialeko 56 etxebizitza esleitzeko EB1-0947/10-LC-000 prozedurari jarraitzeko, eta, beraz, prozedura hori bukatutzat ematea.

Ebazpen honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 16a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.